BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4772

EBAZPENA, 2015eko urriaren 20koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Ogasun eta Finantzako sailburuari eskuordetzen baitzaio energia elektrikoz hornitzeko kontratuaren aldaketa izapidetzea, bertan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoak sartzeko xedeaz.

Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio kudeaketa zuzeneko eraikinetan orokorrean erabili behar diren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzari egozten zaizkion gai eta zerbitzuak kontratatzea. Izan ere, halaxe dago xedatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. kapituluan eta lehen xedapen gehigarrian eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 172/2013 Dekretuaren 12.d) artikuluan.

172/2013 Dekretuaren 12.a) artikuluak, halaber, zuzendaritza horri ematen dio eskuratze zentralizatua duten ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko prozeduren garapen-proposamena.

Garai batean pentsatu zen energia elektrikoa era zentralizatuan kontratatzeak laguntzen zuela zerbitzuak hobeto kudeatzen eta gastu publikoa arrazionalizatzen; ondorioz, esparru-akordio bat izapidetu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eraikin batzuetarako energia elektrikoa hornitzeko, 2015. eta 2016. urteetarako ((KM/2015/014). Horretarako formalizatu zen tenoreko kontratu-agiria, Naturgas energía comercializadora SA enpresarekin, 2014ko abenduaren 11n.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluak aukera ematen du Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatukoak ez diren beste eraikin batzuetara hedatzeko. Hedapen hori gauzatuko da hitzarmen bidez, edo administrazio-klausula zehatzen pleguetan aurreikuspen berariazkoa ezarrita, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean jasotako formulen bidez.

Aipatutako eremu hori energia elektrikoz hornitzeko kontratua modu zentralizatuan egiteko formula egokia aurreikusita dago azaroaren 26ko 30/1992 Legean –Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio-prozedura Erkidearenean–, hain zuzen ere eskumenak eskuordetzeari buruzko 13.1 artikuluan. Honela xedatzen da hor:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzean eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira –nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan– edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

Hortaz, 172/2013 Dekretuko 3,2.f) artikuluak kontratazioaren arloan Ogasun eta Finantzako sailburuari ematen dizkion eskumenen arabera, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituen maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren 10. artikuluarekin bat, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari dagokio, bere titularraren bitartez, Herri Administrazioen kontratuei buruzko legeek kontratazio-organoei esleitzen dizkieten ahalmen eta eskumenak baliatzea. Nolanahi ere, horrek ez du eragotziko Jaurlaritzaren Kontseiluak zenbatekoa dela-eta dagozkion ahalmenak baliatzea, ez eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ordezkaritzetako titularrek kontratazio arloan dagozkien ahalmenak baliatzea ere. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

I.– Ogasun eta Finantzako sailburuari eskuordetzea Naturgas energía comercializadora SA enpresarekin formalizatutako kontratua, energia elektrikoz hornitzekoa, aldatzeko behar diren izapideak egiteko ahalmena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoak ere energia elektrikoz horni ditzan, 2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra arte. Bulegoak 1. eranskinean daude zerrendatuta.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako honako arlo hauetara hedatuko da eskuordetzea, betiere kontratuari aplikatuta:

– Administrazioaren prerrogatibak, aldaketa, iraungitze, lagatze eta azpikontratazioa, IV. liburuko I. tituluko I. kapituluan oro har jasotakoak, eta hornidura-kontratuetarako IV. liburuko II. tituluko IV. kapituluan berariaz aurreikusten direnak.

– Kontratua formalizatzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

II.– Organo eskuordetzailearen esku gelditukо dira kontratazio organoari dagozkion gainerako eskumenak, eta, bereziki, emandako zerbitzuen burutzapenari onespena ematea eta horien ordainketa agintzea.

III.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da eskuordetze hau indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 20a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

CUPS	Hornitze-helbidea	Tarifa BOE ordainpekoa	Tentsioa
ES0021000000028968LP	Izoria 2, Behea-8. Laudio, 01400, Araba	2.0 A	1X220
ES0021000018760532MG	Luis de Castresana 9, behea-99. Barakaldo, 48902, Bizkaia	2.1 A	3X400/230
ES0021000010008548LA	Euskadi plaza 9, behea. Zalla, 48860, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000003160707KK	Gipuzkoa plaza 2. Beasain, 20200, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000003287756WH	Nafarroa etorbidea 12, behea-2. Arrasate 20500, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000003180222LD	Bittor Sarasketa kalea 9, behea-2. Eibar, 20600, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000003236811HH	Bartolome de Urdinso kalea 2, behea-2. Irun, 20301, Gipuzkoa	3.0 A	3X230
ES0021000003491430AG	Araba kalea 13, behea-2. Zarautz, 20800, Gipuzkoa	3.0 A	3X380/220
ES0021000000120945QP	Pintor Clemente Arraiz 7 bis, behea-1. Vitoria-Gasteiz, 01008, Araba	3.0 A	3X380/220
ES0021000003519847LQ	Donostia etorbidea 5, behea-1. Lasarte-Oria, 20160, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000009827311MY	Karmelo Etxegarai 10, behea-12. Gernika Lumo, 48300, bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000013898174ZF	Pablo Mutiozabal kalea 6, behea-5. Lasarte-Oria, 20160, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000011818833KG	Zarautz kalea 58, behea-1. Donostia, 20018, Gipuzkoa	3.0 A	3X380/220
ES0021000009942782BV	Cristobal Murrieta etorb. 22, behea-6. Santurtzi, 48980, Bizkaia	3.0 A	3X380/220
ES0021000013837746DT	Armurulanda plaza 4, behea. Amurrio, 01470, Araba	3.0 A	3X400/230
ES0021000010039310EZ	Zubiaurre 12, behea-2. Iurreta, 48215, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000003456960EB	Larramendi kalea 3-b, behea-1. Tolosa, 20400, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000003358594TQ	Bergara kalea 5, behea-3. Donostia, 20005, Gipuzkoa	3.0 A	3X380/220
ES0021000011378725ER	Saralegi plaza 4, behea-1. Bilbao, 48003, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000003405834FZ	Marino Tabuyo kalea 12, behea-2. Donostia, 20013, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000000153385TH	Jose Domingo Olarte 21, behea-4. Vitoria-Gasteiz, 01010, Araba	3.0 A	3X400/230
ES0021000000149153TH	Paseo la Zumaquera 17, behea-3. Vitoria-Gasteiz, 01006, Araba	3.0 A	3X400/230
ES0021000009876751SL	Elorduigoitia 5, behea-2. Mungia, 48100, Bizkaia	3.0 A	3X230
ES0021000010915855EY	Urbi 5, behea-3. Basauri, 48970, Bizkaia	3.0 A	3X380/220
ES0021000003234748KW	Antzaran plaza 16, behea-1. Irun, 20301, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000011378726EW	Saralegi plaza 4, behea-2. Bilbao, 48003, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000000058204WB	Pasaje las Antillas 14, 1-ezk. Vitoria-Gasteiz, 01012, Araba	3.0 A	3X400/230
ES0021000018459159NT	Julian Gaiarre etorb. 8-b, behea-b. Bilbao, 48004, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000009538568DM	Catalunya 3, behea-6. Bilbao, 48015, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000009472003JW	Uribarri 14, behea-2. Basauri, 48970, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000000028969LD	Izoria 2, behea-9. Laudio, 01400, Araba	3.0 A	3X400/230
ES0021000009643451SP	Padre Larramendi 1, behea-1. Bilbao, 48012, Bizkaia	3.0 A	3X380/220
ES0021000003519848LV	Donostia etorbidea 5, behea-2. Lasarte-Oria, 20160, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000013562257ZM	San Ignazio kalea 40-a, behea-lc. Ondarroa, 48700, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000016534815HC	Nafarroa enparantza 3, behea. Zumarraga, 20700, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230

CUPS	Hornitze-helbidea	Tarifa BOE ordainpekoa	Tentsioa
ES0021000010710168AP	Padre Larramendi 1, solairuartea. Bilbao, 48012, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000003332260MV	Maurice Ravel kalea 16, behea-2. Errenteria, 20100, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000013735421EW	Txapela 2, behea-6. Erandio, 48950, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000009449165DA	Munoa 19, behea-2. Barakaldo, 48903, Bizkaia	3.0 A	3X380/220
ES0021000009643452SD	Padre Larramendi 1, behea-2. Bilbao, 48012, Bizkaia	3.0 A	3X380/220
ES0021000012398869DA	Gabriel Kurutzelaegi kalea 8, behea-ptt. Elgoibar, 20870, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000009596133MR	Juan de Gardeazabal 3, esk. A- behea-8. Bilbao, 48004, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000003157890ZX	Urola kalea 6, behea-5. Azpeitia, 20730, Gipuzkoa	3.0 A	3X400/230
ES0021000018714213SF	Miguel de Unamuno 37, behea -99. Portugalete, 48920, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000009806591RD	Arlamendi 4, behea-3. Areeta, Getxo, 48930, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000009623590WL	Mazarredo etorb. 39, behea-5. Bilbao, 48009, Bizkaia	3.0 A	3X400/230
ES0021000012003231BB	San Juan plaza 1, behea-3. Agurain, 01200, Araba	3.0 A	3X400/230
ES0021000000101381QV	Jose Achotegui 1, behea-1. Vitoria-Gasteiz, 01008, Araba	3.1 A	13.000
ES0021000009983107VT	Via Galindo 14 (Enpleguko Institutu Nazionala), behe bakarra. Sestao, 48910, Bizkaia	3.1 A	30.000